



ALBOAN

Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgairako material osagarria

DBHko 1., 2. edo 3. maila



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza baliabideak ALBOAN

...

16. Lurraren seme-alabak. (2008)
17. Garepenaren trena. (2008)
18. Milurtekoko Garapen Helburuen Mandalak. (2008)
19. Pertsona errefuxiatuen begitarreak eta oinatzak.
Jarduera-gida. Ikus-entzunezkoa materiala. (2007)
20. Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarria.
Lehen Hezkuntza. (2011)
21. Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgairako
material osagarria. DBHko 1., 2. edo 3. maila. (2011)

Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgairako material osagarria

DBHko 1., 2. edo 3. maila



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda kalea, 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

Estenaga Apezpikua, 1 • 01002 Gasteiz
Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676
alboanar@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: **ALBOAN**

Data: iraila 2011

Itzulpena: Elhuyar

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: Bi-2466-2011

Lan honen erreproduzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Nola erabili DBH-ko 1., 2. edo 3. mailarako material osagarria	9
2.1. Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgaiko zer gai-multzo landu daitezke material honetako jarduerekin?	9
2.2. Nola aurkitu jarduerak?	12
Adibide praktikoa	13
2.3. Jatorrizko zer baliabide erabili dira jarduera-gida egiteko?	20
3. Jarduera-gida	23
1. Atala: Eduki komunak	24
2. Atala: Euskal Autonomia Erkidegoa: Elkarbizitza	
Nafarroa: Pertsonen arteko harremanak eta parte-hartzea	25
3. Atala: Euskal Autonomia Erkidegoa: Parte-hartzea	
Nafarroa: Hiritarren eskubideak eta betebeharrak	25
4. Atala: Euskal Autonomia Erkidegoa: Dibertsitate handiko mundua	
Nafarroa: XXI. mendeko gizarte demokratikoak	26
5. Atala: Euskal Autonomia Erkidegoa: Sexua eta gizarte-rolak	
Nafarroa: Hiritartasuna mundu globalean	27
6. Atala: Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik:	
Demokraziaranzko aurrerapausoa	27
4. Material osagarrien eranskina	51

1. Sarrera

Heztea, gaur egun, erronka bat da, beti izan den bezalaxe. Ahalik eta erantzun egokiena eman behar diogu erronka horri, hartara beste mundu posible bat eraiki ahal izan dezagun.

Hiritar kritikoak eta beste mundu posible bat eraikitzeke konpromisoa dutenak heztea da, gaur egun, hezkuntzaren erronka hori.

Hiritartasuna da talde bateko sentitzea eta pertsonak eta erakundeek konpromisoa izatea guztien onerako jarduteko eta guztiak babesteko, bereziki ahulenei begira. Hiritartasuna protagonista bihurtzen da gizarte konprometitu eta bidezko bat eraikitzeke orduan. Hiritartasuna estatu jakinen mugez eta legez-kotasunaz haraindi doa. Munduko hiritarrez dihardugu.

Prestakuntza da banakoek eta taldeek gizarte-errealitatean eragiteke duten gaitasuna zabaltzea, hezkuntza- eta gaitze-prozesuen bidez. Prozesu horren bidez, banakoa garatzeko eta gizartean eta politikan parte hartzeko ezinbestekoak diren jarrerak eta gaitasunak lortzen dira.

ALBOANek **hiritar arduratsuak**, konprometituak eta integratzaileak prestatzen lagundu nahi du, eta, horretarako, bidegabekeriak sortzen dituen kultura-eredu menderatzailearentzat alternatiba integratzaileak emango dituen **proposamenak eskaintzen ditugu hezkuntzarako, komunikaziorako eta gizarte parte-hartzerako**.

Hiritartasunerako Hezkuntza bat, zeinak:

- **Eskubide** eta betebeharren, parte-hartze sozialaren eta bakearen kulturaren alde egiten baitu bereziki (kultura-artekotasuna, bakea, giza eskubideak, etab.).
- **Gizon-emakumeen** arteko berdintasunaren alde egiten baitu, eta, horretarako, kontuan hartzen du genero-ekitatea hezkuntza-materialetan,

neskatila guztiek hezkuntzarako bidezko sarbidea izan dezatela aldarrikatzen du eta bizitzako eremu publiko eta pribatu guztietan gizon-ema-kumeen arteko genero-harreman bidezkoagoak sustatzen ditu.

- **Eragin** politikoaren eta sareetako parte hartzearen bidez, Hegoaldean baztertutako kolektiboen bizitzari eragiten dioten erabaki-eremu politikoetan eragiten baitu; horretarako, guk dugun hiritartasunerako hezkuntzaren ikuskera eta hura sustatzeko nahia gurekin partekatzen dituzten erakundeekin hitzarmenak egiten ditugu.
- **Eraginkortasunez** ematen baitu gizartea aldatzeko eta gure ingurunean gizartearen atxikimendu handiagoa eta agerpen publikoa lortzeko egiten dugun lanaren berri.

Gure ustez, munduko egiazko hiritarrak heztea **irakasgai batean lortu daitekeena baino harago doa**, baina irakasgai hori hezkuntza-aukera bikaina da, eta baliatu egin behar dugu gaitasun hura garatzeko.

Gure ustez, oraingo gizarteak behar duen hiritar-eredua lortzeko legea baino gehiago behar da. **“Alde soziala garatzen duen eta askotariko egoeratan elkarbizitza sustatzen duen hiritartasun-eredu bat”** lortzeko gai diren pertsonak behar ditu gizarteak (Audigier, 2000; 9. or., **ALBOAN** eta Deustuko Unibertsitatea *De la ciudadanía local a la global y de la ciudadanía global a la local*, 2006) DBHko Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgaiaren curriculumak gatzetxoak bide horretan laguntzeko aukera ematen digu.

ALBOANek, bere lanaren fruitu, material didaktikoak sortu ditu, eta horregatik irakasleek Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgaiaren erabil ditzaketan proposamenak eskaintzen ditugu.

Material honetan, hezkuntza-proposamenak gida moduan aurkezten ditugu, irakasleek Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko zikloetako irakasgaietan gai-multzoak lantzeko material osagarriak izan ditzaten. Jarduerak antolatzeko garaian, kontuan izan dugu irakasgaiaren programazioa nola orientatua dagoen BOEn, NAOen eta EHAAn.

Gidarekin batera, CD-DVD bat dago, eta han jaso dira gida honetarako jarduerak aukeratzeko erabili ditugun baliabideak.

Azkenik, argitalpenaren amaierako eranskinean, Hiritartasunerako Hezkuntza lantzeko **ALBOANek** dituen proposamen gehiago aurkituko dituzu.

- Proposamen batzuk sarean daude: www.alboan.org
- Beste proposamen batzuk, berriz, Bilboko, Iruñeko, Donostiako eta Gasteizko egoitzetan aurkituko dituzu.

2. Nola erabili DBH-ko 1., 2. edo 3. mailarako material osagarria

Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgairako material osagarri honetan, jarduera-multzo bat topatuko duzu, metodologia aktibo eta parte-hartzailean oinarritua. Jarduera horiek **ALBOANek** azken urteotan irakasleen lana errazteko prestatu dituen material didaktiko guztien artean aukeratu dira.

Hemen aukeratutako jarduerak garatu ahal izateko, **ALBOANek** material honenkin batera aurkeztutako “Hezkuntza-materialak” CD-DVDra jo behar duzu.

2.1. Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgaiko zer gai-multzo landu daitezke material honetako jarduerekin?¹

1. ATALA: Eduki komunak

Euskal Autonomia Erkidegoa

- a. Arrazoiak eta iritziak bereiztea.
- b. Simulazioa, komunikazio-teknikak (inkestak, elkarrizketak, eta abar) eta bitartekaritza erabiltzea egoera gatazkatsuei aurre egiteko tresna gisa.
- c. Eztabaidatzeko gaitasunak erabiltzea, norbere eta besteen sentimenduak ezagutzea eta komunikazioa eraginkorra izatea laguntzen dituztenak.
- d. Nork bere diskurtsoak sortzea, arrazoibidean oinarrituta (informazioa, interpretazioa, arrazoitzea).

¹ BOEn eta NAOen argitaratutako blokeekin bat datoz, aldiz EHAAn beste orden batean eta zenbait berezitasunekin azaltzen da. Bloke bakoitzean erkidego bakoitzerako atala sortu dugu.

- e. Diskurtsoak sortzean besteen ikuspuntuak erabiltzea, horien aurka egiteko edo norbere ikuspuntuekin hein batean edo erabat integratzeko.
- f. Informazioa ondo aukeratzeko irizpideak garatzea, bereziki Interneten aurkitzen den informazioari dagokionez.
- g. Diskurtso baten ideia nagusiak identifikatzea. Informazioa irizpide batzuen arabera sailkatzea.
- h. Talde-lanen proiektuen diseinuan, antolaketan eta garapenean laguntzea.
- i. Hainbat informazio-iturri erabiltzea: idatzizkoak, ahozkoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.

Nafarroa

- a. Norbere iritziak eta usteak adieraztea argudio arrazoituak erabiliz eta besteen iritziak onartzeko gai izatea.
- b. Hitz egitea, gatazkei indarkeriarik gabe aurre egiteko estrategia gisa.
- c. Norbere iritziak eta usteak adieraztea argudio arrazoituak erabiliz. Errealitatearen alderdi garrantzitsuei buruzko eztabaidak antolatzea eta gauzatzea, errealitate hori hobetzeko jarrerarekin.
- d. Gaurkotasuneko gai edo gertaera baten inguruan komunikabideek emandako informazioaren azterketa konparatiboa eta ebaluazio kritikoa egitea.

2. ATALA

Euskal Autonomia Erkidegoa: Elkarbizitza

- a. Norberaren nortasuna, askatasuna eta erantzukizuna.
- b. Inteligentzia, sentimenduak eta emozioak.
- c. Elkarbizitzarako gaitasun eta jarrera sozialak. Indarkeria baztertzea eta iritzi-aniztasuna onartzea.
- d. Gatazka eta bitartekaritza.

Nafarroa: Pertsonen arteko harremanak eta parte-hartzea

- a. Autonomia pertsonala eta pertsonen arteko harremanak. Estimua eta emozioak.
- b. Eguneroko elkarbizitzan indarkeriarik gabeko jarrerak garatzea.
- c. Ikastetxean eta gizarte justu eta solidario bat lortzeko laguntzen duten jarduera sozialetan parte hartzea.

3. ATALA

Euskal Autonomia Erkidegoa: Parte-hartzea

- a. Elkarbizitza eta parte-hartze demokratikoa. Ikastetxean eta inguru hurbilean parte hartzea.
- b. Ondasun komunak, ondare naturala eta zerbitzu publikoak identifikatzea, aintzat hartzea eta zaintzea. Gizakiaren harremanak gainontzeko animaliekin.

Nafarroa: Hiritarren eskubideak eta betebeharrak

- a. Giza Eskubideen Adierazpen unibertsala, nazioarteko itunak eta hitzarmenak. Giza eskubideak urratzearen eta nazioarteko auzitegien ohiko ekintza judizialaren gaitzespena. Baloratzea gizakien eskubideak eta betebeharrak amaitu gabeko lorpen historikoak diren eta konstituzioak eskubideak onartzen dituen iturria diren.
- b. Eskubide-berdintasuna eta aniztasuna. Errespetua eta hiritarren aukera pertsonalen balorazio kritikoa.
- c. Emakumeen eskubideen lorpena (parte-hartze politikoa, hezkuntza, lan ordaindua, tratu- eta aukera-berdintasuna) eta gaur egungo egoera munduan.

4. ATALA

Euskal Autonomia Erkidegoa: Dibertsitate handiko mundua

- a. Eskubide-berdintasuna eta aniztasuna. Errespetua eta hiritarren aukera pertsonalen balorazio kritikoa.
- b. Diskriminazioa: eragileak eta kausak. Aurreiritzi sozialak, arrazistak, xenofoboak, sexistak eta homofoboak.
- c. Desberdintasun sozialak eta kulturalak gaur egungo gizarteen artean.
- d. Dibertsitatea: asimilazioa, baterako existentzia eta kultura-artekotasuna. Gutxiengo etnikoak.

Nafarroa: XXI. mendeko gizarte demokratikoak

- a. Gizarte- eta kultura-aniztasuna. Hainbat kulturen arteko elkarbizitza gizarte plural batean. Desberdintasun pertsonalek, ekonomikoek edo sozialek eragindako diskriminazioak baztertzeara.
- b. Ondasun komunak eta zerbitzu publikoak identifikatzea, aintzat hartzea eta zaintzea.
- c. Zentzuzko kontsumo arduratsua. Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak onartzea. Publizitatezko mezuen eragina gizarte-eredu eta -ohituretan.

5. ATALA

Euskal Autonomia Erkidegoa: Sexua eta gizarte-rolak

- a. Etxeko lanak. Lanaren bereizketa soziala eta sexuala.
- b. Jarrera positiboa eta aktiboa garatzea emakumeek eta gizonek bizitzaren mantenurako lanean erantzukizunak partekatzearen ideari dagokionez.

Nafarroa: Hiritartasuna mundu globalean

- a. Ezberdintasunez betetako mundua: aberastasuna eta pobrezia. "Pobreziaren feminizazioa". Hezkuntzarako aukerarik eza pobrezia-iturri gisa. Pobreziaren aurkako borroka eta garapenari laguntzea.
- b. Egungo munduko gatazkak: nazioarteko erakundeek eta Espainiako indar armatuek nazioarteko bake-misioetan duten papera. Nazioarteko Giza Zuzenbidea. Banako eta taldeko ekintzak bakearen alde.

6. ATALA. Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik

Demokraziaranzko aurrerapausoa

- a. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena.
- b. Hiritarren eskubideak eta betebeharrak.
- c. Giza eskubideak urratzen dituzten egoeren aurrean edozein justifikazio baztertea.
- d. Garapen jasangarria: demokraziaren esparru berria. Garapen Jasangarriaren EAEko Estrategia (2002-2020) eta Agenda 21.
- e. Globalizazioa eta hiritartasuna. Ezkutuko hiritarrak eta pobrezia: emakumeak, papergabeak, langabeak, etab.

2.2. Nola aurkitu jarduerak?

Materiala prestatzeko garaian, jarduerak hiru bilaketa-mota erabiliz lortzeko moduan prestatu ditugu. Jarduera bakoitzari buruz emandako informazio-kategorietatik abiatuz, gure beharretara gehien egokitzen direnak aukeratu ditza-kegu, eta, aukeratu ondoren, CD-DVDan bilatu, urrats jakin batzuk eginez. Era- biltzen dugun kategoriaren arabera, bilaketa arrunta (lehenengo aukera), bilaketa aurreratua (bigarren aukera) edo atalen arabeko bilaketa (hiruga- rren aukera) aukeratu beharko dugu.

Jarraian, jarduera baten bilaketaren adibide praktikoa eginez azalduko ditugu bilaketa-aukerak eta jarduera aurkitzeko urratsak.

Adibide praktikoa: Nola aurkitu “Munduko merkatua” jarduera?

Hau da ariketaren inguruan interesatzen zaigun informazioa eta gidak ematen diguna:



Izenburua:

Munduko merkatua²



Jardueraren deskribapena:

Nondik datoz erosten ditugun produktuak? Nola banatzen da produktuaren prezioa merkaturatzean parte-hartzen dutenen artean? Nork ateratzen du etekina banaketa horretatik, eta nori egiten dio kalte? Animatuko gara komiki edo istorio bat sortzen produktu horiek egiten duten bidearekin?



Iturria:

Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Gaia:

Berdintasunezko gizarte-harremanak/Giza garapena eta garapen jasangarria/Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa.



Iraupena:

50 minutu.

² Informazioan ez dugu adinik gehitu material honetako jarduera guztiak 12 urtetik gorako ikasleentzat zuzenduak direlako.

1. **Bilaketa arrunta:** aukeratutako jardueraren izenburua idatzi eta haren deskribapena ikusteko erabil dezakegu, edota interesatzen zaigun gai bat idatzi eta materialek gai horri buruz ematen dizkiguten aukera guztiak ikusteko.

Titulua bilatuko dugu: **Munduko merkatua**



Ariketan klik egingo dugu fitxan sartzeko.

ALBOAN bitaketa + emailtzak

azala > menua > munduko hiritarrak > hiritarrasun unibertsala lortzeko parte hartzea > 2. zikloa

Titulua: Munduko merkaturak

Deskribapena:

Nongoak dira erosten ditugun produktuek? Nola banatzen da produktuen prezioa komertzializazio prozesuan parte hartzen duten alderdi ezberdinen artean? Zeintzuk dira onuradunak eta zeintzuk lortzen dira kalteak? Animatzen gara historia bat sortzera edo komiki bat egitera produktuek jarraitzen duten ibilbidearekin?

"Hirugarren mundu" deiturikoan dagoen herrialderen batean egindako produktuen etiketak, prezioa jarrita, ekar ditzatela eskatu aurreko saio batean. Taldeka jarri eta produktu horietako bat aukeratu behar dute. Ondoren, merkaturatze-prozesuan parte hartzen duten eragile guztien artean prezio hori nola banatzen den (1.1 fitxan emandako argibideak erabili) eta horietako bakoitzari zeln ehuneko dagokion kalkulatu behar dute.

Gero, galdera batzuk egingo zaizkie taldean hausnarketa egin dezaten. Halaber, kontsumo arduratsua izan dadin herritarrek parte

Iturria:

Aktibitate hau matematikako derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2. zikloan lantzeko proposatzen da. Parte- hartzea atalean kokatzen da, Munduko hiritarrak proiektu multidisziplinarraren baitan.

Gala:

Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa / Giza garapena eta garapen Jasangarria / Berdintasunezko merkataritza harenarenk

Arloak: Matematika

Zikloa Eta Adina: DBH 2. zikloa / 14-16 urte

Iraupena: 50 minutuko saio bat.

Materialak: Fitxa 1.1 Internet (informazio gehiago).

Aktibitatea burutzeko fitxa osagarria: [201431](#)

Inprimatu Irakasleen ebaluazioa

Jarduerak material osagarria badu, material horretan sartu ahal izango gara. Adibidearekin jarraituz, behealdean ezkerrean klik egingo dugu, 1.1 fitxan, hura deskargatzeko.

OHARRA: gerta daiteke fitxa Interneteko nabigatzailean irekitzea.

1.1. Fitxa

Lehengaiak ekoizten dituzten herrialdeen eta herrialde industrializatuen arteko diferentziak ezagutuko ditugu. Merkatuan erosten diren produktuuen prezioa bost zatitan banatzen da:

Ekoizlea:	Lehengaiak ekoizten duen pertsona: laboraria, artisaua...
↕	
Herrialde ekoizleak:	Ekoizten den herrialdeko gobernuak.
↕	
Bitartekariak:	Merkatatza-, garraio- eta inportazio-entresak. Transnazionalak.
↕	
Prozesatzaileak:	Lehengaiak prozesatzen dituzten fabrikak eta industriak.
↕	
Txikizkariak:	Denda eta merkatuetako merkatariak.

Bost eragile horiei buruzko informazio gehiago bila dezakezue.

2. **Bilaketa aurreratua:** adina, gaia eta zer arlo landu nahi den aukeratu daiteke, eta kategoria horiekin erlazioz atutako jarduera guztiak ikusi.

Hezkuntza-zikloa aukeratu dugu: DBH guztia 12-16 urte.


Curriculum-arloa aukeratu dugu: arlo guztiak.

Gaia aukeratu dugu: Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa.

Titulua	Deskribapena
Zientzia eta gizarte gatazkan	Zer dira elkagai transgenikoak? Zein neurritan produktu eta kontsumitzen dira Europan? Zein da produktu transgenikoaren ekolozpenaren eta biologikoaren arteko ratioa? Zer iruditzen zaizkizue lortutako datuak?
Khandiako energia-gatazka	Zein da gure gizartearen energia kontsumoa? Eta zein da Khandia bezalako herrialdeetan kontsumoa? Zein alternatiba energetiko bururaten zaizkizue herrialde honetako arazo energetikoa konpontzeko?
Elkagai transgenikoak	Zer iruditzen zaizkizue elkagai transgenikoak? Informazio gehiago bilatuko dugu gure iritzia argudiatzeko? Zein irakaspen atera ditugu gelan sortu den eztabaidatik?
Café Rodríguez-en kasua	Enpresa multinazionalak kolonizazio modernoko forma bat dira? Badakigu nola funtzionatzen dute herrialde pobretuetan? Zer dira makilak? Nola eragiten dute herrialdeen garapenean?
Jakin zer gatazkan duzun	Nahikoa da Iturriari eragitea ura ugari izateko; baina, asko da hori? Gutxi? Gutxiago erabil genezake? Nori egiten dio mesede aurreteak? Gure poltsari? Ingurumenari? Boliviako El Altoko emakumeei?
Munduko merkata	Nongoak dira erosten ditugun produktuak? Nola banatzen da produktuen prezioa komertzializazio prozesuan parte hartzen duten alderdi ezberdinen artean? Zeintzuk dira onuradunak eta zeintzuk iriñen dira kaltetuak? Animatzen gara historia bat sortzera edo k...
Zine emanaldia	Zer iradokilzen digute eskubideak eta betebeharren inguruko bideoak irudiek? Eta lokala eta globalaren arteko konexioak? Zein betebeharrak edo erantzukizun ditugu herritarrok? Ezagutu ditzagun Iruñean, Perun edota Indian izan dituzten esperientzia batzuk!
Lehenengo inpresioak	Zer da eskubideak eta betebeharren inguruko bideoan gehien gustatu zaitzuna? Eta atentzio gehien eragin dizuna? Jar ditzagun komunean iritzi desberdinak!

Jarduera aukeratzean, bilaketa arruntak (lehenengo bilaketa-aukerak) eman digun deskribapen bera aurkituko dugu.

3. Orriaren eskuinean, gai-multzo hauek agertzen dira: **Munduko hiritarrok; gure munduko protagonista gara, Erakusketak eta gidak, eta Ikus-entzuzko materiala**. Hor bilatu behar da jardueraren “iturria” atalean jartzen duenaren arabera. Kasu honetan, jardueraren iturria hau da: “Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara”, parte-hartzearen atala (Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea).



“Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara” aukeratuko dugu.

ALBOAN bilaketa

azala > menua > munduko hiritarrok

Proiektuaren aurkezpena munduko hiritarrok:

"Munduko hiritarrok, Gure munduko protagonistak gara" diziplina aniztatarako hezkuntza-proposamen bat da eta herritartasuna kontzeptua lantzea du helburu. Proiektua zuzendua dago ikastetxeei (irakasleak, ikasleak, gurasoak, irakasle ez diren langileak) eta aisialdi taldeei. Proposamen transbersala da eta ondorioz ikasgaietako edukietatik abiatuz herritartasun konprometitu eta solidarioa eraikitzea bideratzen du.

Proposamenak hiru gai lantzen ditu eta hauen denboralizazioa malgua da: Eskubideak eta betebeharrak, Parte-hartzea, Gatazken konponketa.

Proiektuaren helburua da lehenengo kontzientzia hartzea herritar bezala pertsona guztiok ditugula eskubideak eta betebeharrak betetzeko eremu desberdinetan. Izan ere, guztienak ez diren eskubideak gutxi batzuen pribilegioak bilakatzeko dira. Hori honela izan ez dadin, beharrezkoa dugu inplikatzeko eta errealitatea aldatzeko parte hartzea. Eremu ezberdinetan parte-hartzeak laguntzen du guztiok mundu honetako protagonista bilakatzeko eta mundu hau justu eta duinagoa izaten pertsona guztiarentzat. Ordea, parte hartzen dugunean, pertsona ezberdinekin harremanetan jartzen gara; interes eta behar ezberdinak dituzten pertsonekin. Ondorioz, batzuetan gatazkak sortzen dira. Hori dela eta, proiektuaren azken fasean gure jarrerak, gaitasunak eta mekanismoak landuko ditugu gatazkak maneiatzen ikasteko eta horiek aukera bilakatzeko.

Diziplina aniztatarako proposamen honek errekurtso ezberdinak eskaintzen ditu, gai bakoitzerako:

- Oinarritzko dokumentua proposamenerako
- Girotzeko hamar kartel
- Curriculumera egokituak dauden lau karpeta proposamen didaktikoekin: lehen Hezkuntza, bigarren Hezkuntza eta batxilergoa
- Jokoa (lehen hezkuntzarako batik bat)
- Bideoa eta hau lantzeko gida didaktikoa hainbat jarduerekin (bigarren hezkuntza eta batxilergorako)

Galak ondorengoak dira:

- Eskubideak eta betebeharrak
- Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea
- Gatazken konponketa

Hiritartasun unibertsala lortzeko parte-hartzea aukeratuko dugu. Hurrengo pantailan, aukeratu Bigarren Hezkuntza, 2. zikloa.

The screenshot shows the ALBOAN website interface. At the top, there are navigation icons for 'MUNDUKO HIRITARROK', 'GURE MUNDUKO PROTAGONISTAK GARA', and 'MUNDUKO HIRITARROK'. The main content area is titled 'Derrigorrezko Bigarren hezkuntzako bigarren ziklorako proposatutako hezkuntza materiala'. Below this, there is a table with two columns: 'Arloak' (Subjects) and 'Jarduerak' (Activities). The table lists various subjects and their corresponding activities, such as 'Matematika', 'Natur zientziak', 'Arte hezkuntza', 'Hizkuntza eta literatura', 'Atzerriko hizkuntza', 'Gizarte-aztertzak', 'Musika', and 'Erlijioa'. A red circle highlights the link 'munduko merkatar' in the 'Jarduerak' column for 'Matematika'. At the bottom of the page, there is a footer with the text 'Honetaz gain, informazio eta proposamen gehiago aurki ditzakezun web orriak dituzu.'

Proposamen didaktikoaren aurkibidean, jarduera bilatu, eta aukeratuko dugu.

2.3. Jatorrizko zer baliabide erabili dira jarduera-gida egiteko?

Jarraian, ALBOANen baliabideen aurkezpen-laburpen bat egingo dugu; baliabideen artean daude material honetarako aukeratutako jarduerak (fitxa bakoitzeko *iturriak* atalean agertzen direnak dira).

MUNDUKO HIRITARROK; GURE MUNDUKO PROTAGONISTAK GARA

Diziplina anitzeko proposamen bat da. Hiritartasunaren gaia lantzen du, eta irakasgaiko programako edukiekin lotzeko aukera ematen du; horrenbestez, hiritartasun arduratsua eta solidarioa eraikitzen laguntzen du.

Hiru gai-multzo ditu: Eskubideak eta betebeharrak, Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea eta Gatazken konponketa.

- **Eskubideak eta betebeharrak:** giza eskubideak gizaki guztien eskubide direla defendatzen da; pertsona guztien eskubideak ez direnak gutxi batzuen pribilegioak dira. Eskubideek berekin betebeharrak dakartzatela ere defendatzen da, ezinbesteko korrelazioa baitago haien artean, eta eskubideak nahiz betebeharrak familian, ikasgelan, auzoan eta hirian ditugula ere bai.
- **Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea:** antolatutako pertsona askoren ahaleginari eta parte-hartzeari esker lortu dira gauza gehienak gizarteetan. Horretarako, eremu hurbilenetan (familia, auzoa, herria) parte hartzen hasi behar da, eta ohartu munduan parte hartzeko modu ugari daudela. Parte-hartzearen bidez, gure munduko protagonistak izan gaitzke, eta guztiontzako mundu duin eta bidezkoago bat eraiki dezakegu.
- **Gatazken konponketa:** gatazkek gizarte-bizitzako eta giza harremanetako berezko elementutzat hartzen dira. Ez dugu haien beldur izan behar, aberastu egiten gaituen aniztasun batetik sortzen baitira batzuetan. Gatazkek aukera ona dira pertsonak eta gizarteak hazteko eta hobetzeko. Komeni da gatazka eta indarkeria bereiztea. Gatazken arrazoiak, moldeak eta horiek modu baketsuan konpontzeko moduak ere aztertzen dira, gatazkek aukera bihurtzeko.

UNITATE DIDAKTIKOAK

Elkartasuna sustatzen duten eduki, prozedura eta jarrerak eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak lotzen dituzten hainbat gai jorratzen dituzte unitate didaktikoek. Irakasgai zehatzetara begira sortu badira ere, ondo moldatzen dira beste curriculum-arloekin eta prestakuntza-eremuekin.

3. Jarduera-gida

Jarraian, Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgaiaren osagarri gisa erabil daitezkeen jarduerak aurkeztuko ditugu.

Ikasgai honetako curriculumek hainbat desberdintasun dute Nafarroan eta EAEn, taula honetan ikus daitekeenez:

	EAE	Nafarroa
1. Atala	Eduki komunak	Eduki komunak
2. Atala	Elkarbizitza	Pertsonen arteko harremanak eta parte-hartzea
3. Atala	Parte-hartzea	Hiritarren eskubideak eta betebeharrak
4. Atala	Dibertsitate handiko mundua	XXI. mendeko gizarte demokratikoak
5. Atala	Sexua eta gizarte-rolak	Hiritartasuna mundu globalean
6. atala	Demokraziaranzko aurrerapausoa	

EAEko eta Nafarroako curriculumak jarduera jakin batzuekin lotzea erabaki dugu, atal bakoitzaren barruan. Gero, jarduera zenbakituen zerrenda aurkituko duzue, jarduera bakoitzaren nondik norakoaren berri jakin ahal izateko.

1. ATALA: Eduki komunak

Euskal Autonomia Erkidegoa

- a. Arrazoiak eta iritziak bereiztea.

Jarduerak: 1 eta 2

- b. Simulazioa, komunikazio-teknikak (inkestak, elkarrizketak, eta abar) eta bitartekaritza erabiltzea egoera gatazkatsuei aurre egiteko tresna gisa.

- c. Eztabaidatzeko gaitasunak erabiltzea, norbere eta besteen sentimenduak ezagutzea eta komunikazioa eraginkorra izatea laguntzen dituztenak.

Jarduerak: 3 eta 4

- d. Nork bere diskurtsoak sortzea, arrazoibidean oinarrituta (informazioa, interpretazioa, arrazoitzea).

- e. Diskurtsoak sortzean besteen ikuspuntuak erabiltzea, horien aurka egiteko edo norbere ikuspuntuekin hein batean edo erabat integratzeko.

Jarduerak: 5 eta 6

- f. Informazioa ondo aukeratzeko irizpideak garatzea, bereziki Interneten aurkitzen den informazioari dagokionez.

Jarduerak: 7, 8 eta 9

- g. Diskurtso baten ideia nagusiak identifikatzea. Informazioa irizpide batzuen arabera sailkatzea.

Jarduera: 10

- h. Talde-lanen proiektuak diseinatzen, antolatzen eta garatzen laguntzea.

Jarduera: 11

- i. Hainbat informazio-iturri erabiltzea: idatzizkoak, ahozkoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.

Jarduera: 12

Nafarroa

- a. Norbere iritziak eta usteak adieraztea argudio arrazoituak erabiliz eta besteen iritziak onartzeko gai izatea.

Jarduerak: 1 eta 2

- b. Hitz egitea, gatazkei indarkeriarik gabe aurre egiteko estrategia gisa.

Jarduerak: 3 eta 4

- c. Norbere iritziak eta usteak adieraztea argudio arrazoituak erabiliz. Errealitatearen alderdi garrantzitsuei buruzko eztabaidak antolatzea eta gauzatzea, errealitate hori hobetzeko jarrerarekin.

Jarduerak: 5 eta 6

- d. Gaurkotasuneko gai edo gertaera baten inguruan komunikabideek emandako informazioaren azterketa konparatiboa eta ebaluazio kritikoa egitea.

Jarduerak: 7, 8 eta 9

2. ATALA

Euskal Autonomia Erkidegoa: Elkarbizitza

- a. Norberaren nortasuna, askatasuna eta erantzukizuna.
b. Inteligentzia, sentimenduak eta emozioak.

Jarduera: 13

- c. Elkarbizitzarako gaitasun eta jarrera sozialak. Indarkeria baztertzeko eta iritzi-aniztasuna onartzea.
d. Gatazka eta bitartekaritza.

Jarduerak: 14, 15, 16 eta 23

Nafarroa: Pertsonen arteko harremanak eta parte-hartzea

- a. Autonomia pertsonala eta pertsonen arteko harremanak. Estimua eta emozioak.

Jarduera: 13

- b. Eguneroko elkarbizitzan indarkeriarik gabeko jarrerak garatzea.

Jarduerak: 14, 15 eta 16

- c. Ikastetxean eta gizarte justu eta solidario bat lortzeko laguntzen duten jarduera sozialetan parte hartzea.

Jarduerak: 17etik 25era

3. ATALA

Euskal Autonomia Erkidegoa: Parte-hartzea

- a. Elkarbizitza eta parte-hartze demokratikoa. Ikastetxean eta inguru hurbilean parte hartzea.

Jarduerak: 17etik 25era bitartekoak eta 32

- b. Ondasun komunak, ondare naturala eta zerbitzu publikoak identifikatzea, aintzat hartzea eta zaintzea. Gizakiaren harremanak gainontzeko animaliekin.

Jarduera: 37

Nafarroa: Hiritarren eskubideak eta betebeharrak
<p>a. Giza Eskubideen Adierazpen unibertuala, nazioarteko itunak eta hitzarmenak. Giza eskubideak urratzearen eta nazioarteko auzitegien ohiko ekintza judizialaren gaitzespena. Baloratzea gizakien eskubideak eta betebeharrak amaitu gabeko lorpen historikoak diren eta konstituzioak eskubideak onartzen dituen iturria diren.</p> <p>Jarduerak: 26 eta 27</p>
<p>b. Eskubide-berdintasuna eta aniztasuna. Errespetua eta hiritarren aukera pertsonalen balorazio kritikoa.</p> <p>Jarduerak: 28 eta 29</p>
<p>c. Emakumeen eskubideen lorpena (parte-hartze politikoa, hezkuntza, lan ordaindua, tratu- eta aukera-berdintasuna) eta gaur egungo egoera munduan.</p> <p>Jarduerak: 30 eta 31</p>
4. ATALA
Euskal Autonomia Erkidegoa: Dibertsitate handiko munduko
<p>a. Eskubide-berdintasuna eta aniztasuna. Errespetua eta hiritarren aukera pertsonalen balorazio kritikoa.</p> <p>Jarduerak: 28 eta 29</p>
<p>b. Diskriminazioa: eragileak eta kausak. Aurreiritzi sozialak, arrazistak, xenofoboak, sexistak eta homofoboak.</p> <p>Jarduera: 34 eta 36</p>
<p>c. Desberdintasun sozialak eta kulturalak gaur egungo gizartearen artean.</p> <p>d. Dibertsitatea: asimilazioa, baterako existentzia eta kultura-artekotasuna. Gutxiengo etnikoak.</p> <p>Jarduera: 35</p>
Nafarroa: XXI. mendeko gizarte demokratikoak
<p>a. Gizarte- eta kultura-aniztasuna. Hainbat kulturen arteko elkarbizitza gizarte plural batean. Desberdintasun pertsonalek, ekonomikoek edo sozialek eragindako diskriminazioak baztertea.</p> <p>Jarduerak: 33tik 36ra</p>
<p>b. Ondasun komunak eta zerbitzu publikoak identifikatzea, aintzat hartzea eta zaintzea.</p> <p>Jarduera: 37</p>

- c. Zentzuzko kontsumo arduratsua. Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak onartzea. Publizitatezko mezuen eragina gizarte-eredu eta -ohituretan.

Jarduerak: 38 eta 39

5. ATALA

Euskal Autonomia Erkidegoa: Generoa eta gizarte-rolak

- a. Etxeko lanak. Lanaren bereizketa soziala eta sexuala.

Jarduera: 31

- b. Jarrera positiboa eta aktiboa garatzea emakumeek eta gizonek bizitzaren mantenurako lanean erantzukizunak partekatzearen ideari dagokionez.

Jarduerak: 30 eta 31

Nafarroa: Hiritartasuna mundu globalean

- a. Ezberdintasunez betetako mundua: aberastasuna eta pobrezia. "Pobreziaren feminizazioa". Hezkuntzarako aukerarik ez pobrezia-iturri gisa. Pobreziaren aurkako borroka eta garapenari laguntzea.

Jarduerak: 40 eta 41

- b. Egungo munduko gatazkak: nazioarteko erakundeek eta Espainiako indar armatuek nazioarteko bake-misioetan duten papera. Nazioarteko Giza Zuzenbidea. Banako eta taldeko ekintzak bakearen alde.

Jarduerak: 42 eta 43

6. ATALA. Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik

Demokraziaranzko aurrerapausoa

- a. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena.

- b. Hiritarren eskubideak eta betebeharrak.

Jarduerak: 26 eta 27

- c. Giza eskubideak urratzen dituzten egoeren aurrean edozein justifikazio baztertzea.

Jarduerak: 28 eta 29

- d. El desarrollo sostenible: nuevo marco de la democracia. Estrategia Vasca de Garapen jasangarria: demokraziaren esparru berria. Garapen Jasangarriaren EAEko Estrategia (2002-2020) eta Agenda 21.

Jarduerak: 38 eta 39

- e. Globalizazioa eta hiritartasuna. Ezkutuko hiritarrak eta pobrezia: emakumeak, papergabeak, langabeak, etab.

Jarduerak: 40 eta 41

1



Landa edo hiria?



Nola aldatu da bizi garen lekua azken hirurogei urteetan?
Hori jakiteko, elkarrizketatuko dugu adineko pertsona bat?
Aldaketa horrek zer ondorio positibo eta negatibo izan ditu?
Zer egin behar da aldaketak gertatzen direnean pertsona guztiek etekina atera dezaten?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara,
Gatazken konponketa.



Gatazken konponketa/Kultura-artekotasuna/Giza garapena
eta garapen jasagarria.



50 minutu.

2



Gertaerak eta iritziak



Badakigu gertaerak eta iritziak bereizten? Gure pentsatzeko eta
jarduteko modua baldintzatzen duten estereotipoen jabetzen gara?



“Lerro artean irakurtzen” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet/Arrazakeria eta aurreiritziak/
Pertsonen mugimendua.



50 minutu.

3

Zein gatazkek kezkatzen gaituzte?



Zer gatazka gertatzen dira eskolan? Zeinek arduratzen gaituzte gehien? Nola konpon ditzakegu? Galdera horietan oinarrituta, ikasleei proposatzen zaie eskola-eremuan izaten diren gatazkei buruzko inkesta bat egitea.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Gatazken konponketa.



50 minutuko bi saio.

4

Komunikatzen



Komunikazioa garrantzitsua dela uste duzue? Nolakoa izan behar du? Zer gertatzen da informazio zehaztugabea edo mugatua jasotzen dugunean edo informazioa aldatzen denean? Jarduera honetan, hitzezko eta ez-hitzezko gaitasun komunikatiboa taldeka lantzen da, eta komunikatzean arau batzuk errespetatzeko behararen inguruan hausnartzen da.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Komunikabideak eta Internet/ Gatazken konponketa.



60 minutu.

5



Aldaketak erabakitzen



Nola banatuko genuke gure ikastetxeko aurrekontua? Zer da bidezkoagoa, dirua inbertitzea guztientzat onuragarriak diren gauzetan ala pertsona jakin baten beharrak asetzeko? Jarduera honek dilema moral bat sortzen du.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Aniztasuna/Gatazken konponketa.



60 minutuko bi saio.

6



Idatzizko komunikazioa



Orain, gu izango gara kazetariak! Zer iradokitzen digute immigrazioari buruzko komunikabideetako albisteez? Zein da gure iritzia? Idatziko dugu arrazoitutako iritzi bat?



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa/
Elkartasuna/Espiritualtasuna.



50 minutu.

7



Osatu gabeko esaldiak



Badakizu zein herrialdetan 40 milioi pertsonak ez duten osasun-estaldurarik? Eta Europako zein herrialdetan dagoen errezeta batean jartzen duena ulertu ezin dezakeen jendea? Jarduera honetako zenbait datuk harritu egingo zaituzte...



“Lurra begi-bistan” unitate didaktikoa.



Gatazkak eta bakea/Giza garapena eta garapen jasagarria.



40 minutu.

8



Prentsa-zuzentzaileak gara



Prentsak behar bezala tratatzen ditu etorkinak? Egunkariak ematen duten informazio guztia (nazionalitatea, lanbidea, etab.) benetan aipagarria da transmititu nahi den mezuan, edo aurreiritziak sortzeko balio du? Ausartuko gara kazetariei zuzentzen, gertaerak gertatu diren bezala kontatzeko?



“Lerro artean irakurtzen” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet.



50 minutu.



Slogans



Nola eragiten diote komunikabideek mundua ikusteko dugun moduari? Hiritarron eskubideak eta betebeharrak modu egokian jasotzen dituzte beren mezuetan? Animatuko gara mezu horien analisi kritikoa egiten?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Komunikabideak eta Internet.



50 minutuko bi saio.



Kontzeptuzko mapa



Kanpo-zorra handia izateak eragiten dio herrialdearen garapenaren beste alderdiei? Hezkuntza eta osasun-zerbitzuak jasotzeko aukerari laguntzen dio ala mugatu egiten du?



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



Kanpo-zorra.



50 minutu.



Kamera eta ekin



Zein dira gaur egun ingurumenarekin lotuta dauden gairik garrantzitsuenak gure ingurunean? Zer esperientzia ari dira gauzatzen ingurumena babesteko? Agenda 21 ekimena ezagutzen dugu? Egingo dugu telebista-programa bat honen guztiaren berri emateko?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Ingurumena: birziklatzea eta kutsadura/Komunikabideak eta Internet.



60 minutu.



Iritzi-artikulu bat idazten



Zer eragin izan du immigrazioak Espainiako estatuan? Zein dira fenomeno berri horren alderdi positiboak eta negatiboak?



“Lerro artean irakurtzen” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet/Arrazakeria eta aurreiritziak/ Kultura-artekotasuna.



50 minutu.

13



Memoria freskatzen



Gure sentzazioak eta emozioak aztertuko ditugu orain! Gogoratu emozio eta sentzazio biziak izan ditugun egoera pertsonalen bat eta saiatu deskribatzen.



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa/Aniztasuna.



50 minutu.

14



Gatazkak interpretatzea (Jarduera honetarako “Gatazken konponketa” unitate didaktikoko girotzeko posterrak behar dira)



Zer esaten digute posterrek gatazkak bideratzeari eta konpontzeari buruz? Nola beteko dugu horma-irudi zuria?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Gatazken konponketa.



50 minutu.

15



Peace and war



Klaseko arauak ezagutzen ditugu? Zer egiten dugu gatazka bat sortzen denean? Nola konpontzen dugu? Taldeka, gatazka horiek irudikatuko ditugu, ikuspegi positibo batetik.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Gatazken konponketa.



50 minutuko bi saio.

16



Ezinezko zeregina



Guztiok zerbaitetan parte hartzen dugunean, erraza da taldea koordinatzea eta ados jartzea? Nola antolatu behar gara hori lortzeko? Zer egoeretan hartu ohi dugu parte? Nola? Nola sentitzen gara? Merezi du?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/Gatazken konponketa.



50 minutu.



Parte hartu aldatzeko



Benetan parte hartzeko zer modu ezagutzen ditugu? Ezagutzen ditugu, haurrentzako aholkuak esate baterako? Garrantzitsua da pertsonak antolatzea zerbait proposatzeko, salatzeko edo zerbaiten aurka protestatzeko? Gure ikastetxean, nola antolatu gaitzke?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Eskubideak eta betebeharrak/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutuko bi saio.



Gure errealitatea, parte hartzeko aukerak



Zein da gure auzoaren benetako egoera? Zer egin da egoera hori hobetzeko? Zer eragilek egin dituzte posible aldaketa horiek? Parte hartzeko zer modu daude egoera jakin hori hobetzeko?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutuko bi saio.



Eta zuk, zer egiten duzu?



Egiten dugunak badu eraginik gure ingurune hurbilean? Ingurumenari era positiboan eragiteko, nola hartzen dugu parte? Ezagutzen dugu “murriztu, birziklatu, berrerabili” edo gizartean presioa egiteko beste kanpaina batzuk? Nola kontatuko diogu ikastetxeko jendeari egin dugun gogoeta?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/Giza garapena eta garapen jasagarria/Ingurumena: birziklatzea eta kutsadura.



50 minutuko bi saio.



Gure munduaren sintomak



Aukeratu munduari eragiten dion gairen bat, adibidez, haurren lana, kanpo-zorra, gastu militarra... Zer informazio dago prentsan eta Interneten horien inguruan? Nola hartu dezakegu parte egoerak hobera egin dezan? Animatuko gara bildutako informazioarekin albiste bat sortzen eta irrati-programa bat grabatzen?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/ Komunikabideak eta Internet.



50 minutuko hiru saio.



Bideak ikertzen ditugu



Zure inguruan, zer erakunde eta elkarte daude? Ezagutuko ditugu hobeto? Bi erakunde bisitatu eta elkarrizketatuko ditugu, ezagutzeko zer eremutan lan egiten duten eta parte-hartze soziala nola gauzatzen duten.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/Elkartasuna.



50 minutuko bi saio.



Zenbat pisatzen du elur-maluta batek?



Pentsatu al dugu inoiz zer garrantzi izan dezaketen gure ekintzek? Istorio honetan agertzen dira txori bat, zuhaitz bat eta ezer gutxi pisatzen duen elur-maluta bat.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/Elkartasuna.



50 minutu.



Uraren arazoa



Rol-joko bat egingo dugu kontrako interesak defendatzen dituzten lau erakunderekin. Gaia ur-hornidura izango da. Zer arrazoi ematen ditu erakunde bakoitzak? Nola lortu dute ados jartzea? Zuen ustez, zer ezaugarri izan behar ditu parte-hartze arduratsuak?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/Giza garapena eta garapen jasangarria/Gatazken konponketa.



50 minutuko bi saio.



Ibilaldi ekologikoa



Gure inguruneko arazo ekologikorik ezagutzen dugu? Animatu gaitezen taldeka ibilaldi ekologiko bat egiten arazoak detektatzeko! Zer irtenbide proposatzen ditugu? Proposatutako irtenbideak aditzera emango dituzu eskutitz baten bidez?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Ingurumena: birziklatzea eta kutsadura/Giza garapena eta garapen jasangarria/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutuko bi saio eta ibilaldia.



Parte hartu nahi dut



Hiritarren parte hartzearen egoera bat antzetzuko dugu mimikaren bidez? Nola sentituko ginateke beste talde batek ez baligu parte-hartzen utziko? Hiritar guztiek parte-hartzeko aukera izatea oinarritzko eskubide bat da?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/Eskubideak eta betebeharrak/Gatazken konponketa.



50 minutuko bi saio.



Gure eskubideei gainbegiratu bat egiten (Jarduera honetarako “Gatazken konponketa” unitate didaktikoko girotzeko posterrak behar dira)



Zer iradokitzen digute posterretan agertzen diren mezuek? Mezu bakoitzari izenburu bat jartzeko gai gara? Jarduera honen bidez, ikasleei eskatuko diegu eskubideen eta betebeharren inguruko posterretan barrena (posterrak ikastetxean zehar jarrita egongo dira) ibilaldi bat egitea. Hori egin aurretik, posterren behealdean agertzen diren esaldiak estalita egon behar dute. Taldeko, irudiek iradokitzen dutenaren inguruan eztabaidatuko dute, hau da, panelek adierazten duten esanahiari buruz.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak.



60 minutu.



Zeintzuk dira gure eskubideak eta betebeharrak?



Zein eskubide jotzen ditugu oinarrizko eta ezinbestekotzat? Eskubide horiek betebeharrak eskatzen dituzte? Taldeka, eztabaidatu zer eskubide jotzen dituzue oinarrizko eta ezinbestekotzat pentsatu zer betebeharrak izan behar ditugu eskubide horiek bete eta bermatu daitezen.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak.



60 minutu.



Guztua askotarikoa da



Irakasleak diktatzen dituen hitzak beste hitz batzuekin lotuko ditugu. Zer hitzekin lotzen ditugu, adibidez, justizia, bakea, edo beldurra? Klaseko guztiok berdina erantzun dugu? Zergatik? Zer adierazten du emaitza-aniztasun horrek?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Gatazken konponketa/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/ Gizarte-bazterketa.



50 minutuko bi saio.



Sarritan intoleranteak



Zer esanahi du intolerantziak? Animatuko gara jarrera intoleranteak jasotzen dituen testu bat idazten edo egoera bat antzezten? Zer eragiten dute jarrera horiek eta zer ondorio dituzte?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Gatazkak eta bakea/Elkartasuna/Gizarte-bazterketa.



50 minutuko bi saio.



Gizonak eta emakumeak gizartean



Zer paper dute emakumeek gure gizartean? Gizonen eskubide eta erantzukizun berak dituzte? Klasean gai horien inguruan eztabaidatzea proposatzen dizuegu. Zer estrategia erabili behar dira eztabaida ondo joan dadin eta gatazka horri aurre egiteko irtenbideak proposa daitezten?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Gatazkak konpontzea/Baterako hezkuntza/ Eskubideak eta betebeharrak.



50 minutu.



Denbora kontua



Zertan ematen dute denbora gizonek eta emakumeek?
Zeinek ematen dute denbora gehiago etxeko lanak egiten?
Egin inkestak, kalkulatu batez bestekoak eta ehunekoak eta adierazi emaitza horiek grafiko batean. Ikasleek beren inguruko hiru gizoni eta hiru emakumeri (senideak, lagunak, etab.) egingo diete inkesta. Inkesta horretan galdetuko zaie normalean nork egiten dituen lan jakin batzuk.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Eskubideak eta betebeharrak/Baterako hezkuntza/
Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



60 minutu.



Brigadak



Zer arazo ditugu ikasgelan? Nola antolatu gaitezke klaseko pertsona guztiek parte hartuta arazo horiek konpontzen saiatzeko? Horretarako, zer jarrera behar dira?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Gatazken konponketa/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutu.



Ohiko tipikoak



Aurreiritziak ditugu hainbat talderen inguruan? Zer jarrera edo sentrazio sortzen dituzte gudan ijitoek, magrebtarrek edo Saharaz hegoaldeko etorkinek? Eta talde sozial horien parte diren pertsona ospetsuengan pentsatzen badugu, zer jarrera edo sentrazio sortzen digute? Sentrazio berak dira?



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa/
Arrazakeria eta aurreiritziak/Aniztasuna.



60 minutu.



Nire laguna



Nola jokatzeko dugu ez ezagutzen ez dugunaren aurrean? Aurreiritziak eta estereotipoak ditugu bestelakotzat jotzen ditugunengan? Nola konpon dezakegu hori?



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa/
Aniztasuna/Arrazakeria eta aurreiritziak.



50 minutu.



Babel dorrea



Ezagutzen ditugu beste herrialdetako (Japonia, Estatu Batuak, India, Maroko, Grecia, Mexiko, Kenya, etab.) jaki tipikoak? Eta herrialde horietako hizkuntzen alfabetoak? Herrialde horiek mapan kokatzeko gai gara? Jarduera honek aniztasun kulturalaren alderdi batzuk lantzen ditu. Norbere kulturaren beharra eta eskubidearen inguruan hausnartzera eramaten gaitu, baita hainbat kulturek elkarrekin bizitzeak dituen zailtasun eta lorpenen inguruan gogoeta egitera ere.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Aniztasuna/Kultura-artekotasuna.



50 minutu.



Zer esan nahi du edertasuna hitzak?



Gure itxurak badu eraginik lanpostu bat lortzean edo jendearekin gaudenean? Guztiok aukera eta eskubide berak izan behar ditugula uste duzue, itxura alde batera utzita? Zer egin dezakegu hala izan dadin? Taldeka, edertasunak gizartean duen garrantzia jorratzen duen dilema moral bat irakurriko dute ikasleek.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Komunikabideak eta Internet/ Osasun-hezkuntza: droga-mendekotasunak, elikadura, hiesa.



50 minutuko hiru saio.



Gure hondakinen erantzule



Nola zaindu dezakegu ingurumena? Zer egin behar dugu sortzen ditugun hondakinekin? Materialak eta birziklatzeko moduak bereizteko gai gara? Nola izango litzateke mundua ingurumen osasuntsu batez gozatzeko guztion eskubidea errespetatuko bagenu?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Ingurumena: birziklatzea eta kutsadura/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



60 minutu.



Munduko merkatua



Nondik datoz erosten ditugun produktuak? Nola banatzen da produktuaren prezioa merkaturatzean parte-hartzen dutenen artean? Nork ateratzen du etekina banaketa horretatik, eta nori egiten dio kalte? Animatuko gara komiki edo istorio bat sortzen produktu horiek egiten duten bidearekin?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Giza garapena eta garapen jasangarria/Berdintasunezko merkataritza-harremanak/Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa.



50 minutu.



Nork markatzen du erosten duzuna?



Kontsumitu nahi ditugun produktuak aukeratzeko askeak gara? Gure erosketetan eragiten dute multinazionalak? Zergatik erosten ditugu marka jakin batzuk eta ez beste batzuk? Zer da bidezko merkataritza?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Berdintasunezko merkataritza-harremanak/Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa.



60 minutu.



Azpigarapenaren eta garapenaren ezaugarriak



Zer ezaugarriekin lotzen ditugu herrialde “azpigaratuak”? Eta “garatuak”? Ezaugarri jakin batzuk, aberastasuna edo lehortea, esate baterako, herrialde “azpigaratuei” eta “garatuei”, biei lotzea posible da?



“Lurra begi-bistan” unitate didaktikoa.



Aniztasuna/Kolonizazioa/Deskolonizazioa/
Giza garapena eta garapen jasangarria



50 minutu.



Informatu eta jardun



Pentsa dezagun GKE bat garela eta herrialde baten Giza Garapenaren Indizea aztertu nahi dugula. Azterketa eginda, zer jardunbide-proposamen aurkeztuko diogu Nazio Batuen Batzar Nagusiari? Zergatik proposatuko dugu? Jende askori heltzen zaiolako edo koste gutxi dituelako?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Garapenerako lankidetzak/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/Giza garapena eta garapen jasagarria.



60 minutuko bi saio.



Pertsonen kontrako minak



Imajinatu pertsonen kontrako minez beteriko leku batean bizi garela. Nola sentituko ginateke errefuxiatuak bagina eta leku hori zeharkatu behar izango bagenu? Zer oztopo ditu minaz jositako toki batean bizitzeak?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Gatazkak eta bakea/Errefuxiatuak.



60 minutu.



Datuak interpretatuko ditugu



Mundu mailan, zertan gastatzen da batez ere dirua Giza Garapenari buruzko Txostenaren arabera? Oinarrizko hezkuntzan halako zenbat gastatzen da gastu militarrean? Zein dira ondorioak? Aldatu zifrak dolarretatik eurotara eta irudikatu datuak grafiko batean.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Gastu militarra/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/
Eskubideak eta betebeharrak



60 minutu.

4. Material osagarrien eranskina

Jarraian, ALBOANen beste baliabide batzuen erreferentziak aurkezten dizkizugu. Ez daude aurkeztu berri dugun CD-DVDan, baina Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgairako lagungarriak izan dakizkizuke.

Horietako batzuk webgunean eskuratu daitezke, formatu digitalean; beste batzuk, berriz, formatu fisikoa dutenez, Bilboko, Iruñeko, Donostiako eta Gasteizko egoitzetan aurkituko dituzu.

www.alboan.org webgunean, Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgairako jarduerak aurkituko dituzu baliabide hauetan:

Kanpaina-materialak:

• Milurtekoko Garapenaren Helburuak

- 2. koaderno. Jarduerak:
 - Munduko eskolatzeko-desberdintasunaren kontzeptu-mapa
- 3. koaderno. Jarduerak:
 - Datuak mahaigaineratu
 - Begiratu diezaiozun historiari
 - Nire iritzia eman
- 4. koaderno. Jarduerak:
 - Haurren heriotza-tasen kontzeptu-mapa
 - Iritziak ezagutu, kidea aldatu
- 8. koaderno. Jarduerak:
 - Nazioarteko merkataritza, bidezkoa ala bidegabea?
 - Pobreziaren aurka ekin
 - Nor dago norekin zorretan?

- **Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina**

- 2007ko materialak. Jarduerak:
 - Guztion hezkuntza-eskubidea
 - Hezkuntzarik ez jasotzeak zer eragin du herrialdeetan?

Erakusketak:

- **“Aldatu mundua, mundua aldatu egiten da”**

- Jarduerak (gida didaktikoa):
 - Gizarte-aldaketak
 - Aldaketak bestelakoa den jendeari begiratzeko moduan

Material didaktikoak:

- **Etorkizun-aukerak**

- Jarduerak:
 - Posible da errefuxiatuentzat etorkizun-aukerak sortzea?
 - Errefuxiatuak ezagutzen

Sarean edo CD-DVDan dauden argitalpen guztiak paperean ditugu gure **egoitzetan (Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean)**. Gainera, erakusketak eta gure Baliabide Zentroetako beste material batzuk mailega ditzakezu.

Argitalpen honetan Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgairako jarduera-gida bat aurkezten dugu, DBHko 1., 2. edo 3. mailako irakasleek erabili dezaten. Material osagarri hau Hezkuntza Materialak CD-DVDarekin osatzen da.

